

NEURETZAKO BIKANENA

Goizian-goizik, etxetik urten
izer topa dozu bidian?
Gizon gaztia, bular sendoa,
buru jagia, indartsua,
tinko ibillera... Neure albotik
igaro da.

* * *

Neskatil eder, ondo jantzita,
lirain, alaya, begikoa.
Usain ederra bere inguruan,
begi iri-barrez... igaro da.

* * *

Baratz basterran, larrosondoko
ganeko adarran larrosea,

pipil gorria, erdi zabalik
aize bigunaz seaskatua.
Ixil-ixillik agurtu dodaz
neure bidia jarraitua.

* * *

Gelditokian belbil aundia,
gazte ta zarraz betetzen da.
Udea da ta, ba duaz orrek
ibilte andia egitera.
Une batean, eurek begira
gelditu naz.

* * *

Orra or bere, txori txikia
beren egoaz altzetan da.

Zugatz gañetik, bere ibiltea
orain asten da, zeru-ziar.

* * *

Ixil-ixillan agurtu dodaz,
neure bidia jarraituta.
Agur danai, ta ondo ibilli.
Enaz sartuko lei orretan.
Esautu dodaz poz guzti orrek.
Orain, gurago dot kabia.

Gela txiroa, txiki ta argia.
An, neu bakarrik eta ixillan,
aurkitzen dot sarri askotan,
Jauna'k emonda, zoriona.

UTARSUS

LUMO

Eguzkiaren orietan bilbilik nago
neure balkoian, arratsak arnas bitartean.
Ezearen bakea begietan; gorago
Lumoko tontorra, Txairo, urre-auts artean.

Elizako torre luzea erdi lo dago
zeru goiko sabai urdinaren etortean;
arri doneak, ainbat ume giñanen zaingo,
asko joanak Jaunaren atsedean betean.

Begira nagokizu ene Lumo maitea
ume aroko neure bi begi garbiekin;
arima t'aragian dabilkidaz bi pena:

Aita, gazterik il, ez ezagutzearena
—ain ume koxkor ni, zeri jakin gabe zotin—
t'ama merezi aina ez maite izatea.

A. BIDAGUREN

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan
lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak
oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskal-
kia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-
rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER
aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira,
ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez
idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak
ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabe-
nak be bai ipuiñaren barranean idazleak baimena
emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK AL-
KARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larrea-
tegi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren
azkenerako emongo da maikoen erabagia eta
ZER'en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA
Egunkarian be albait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

— Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki
baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK